Ebazpena: R040/2025
Espedientea: E004/2023

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 27a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea kide hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek; bada, hau erabaki dute:

ERABAKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean, GFA) Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren xedea baita zehaztea demandatuak egindako zerga-kudeaketaren bidez egiaztapen-eskumenaren norainokoa GRUPO AMENABAR XXI SL (aurrerantzean, AMENABAR; IFZ: XXXXXXXXX1) sozietatearen 2018ko Sozietateen gaineko Zergari dagokionez (aurrerantzean, SZ), Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 4/2023 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.– AMENABARrek Gipuzkoan du egoitza fiskala, eta, 2017an eta 2018an 10.000.000 eurotik gorako eragiketa-bolumena izan zuenez, eragiketa-bolumenaren proportzioan ordaindu zituen zergak 2018an; ekitaldi horretako ikuskapen-eskumena GFAri dagokio.

2.– ZAEAk, 2022ko irailaren 27an, informazioa eskatu zuen egiaztapen mugatuko prozedura baten barruan, honako hauek aurkezteko:

"*Jasandako atxikipenen eta konturako sarreren ziurtagiriak, 836.119,22 euroko finantza-sarrerak, eta 200.771,51 euroko higiezinen errentamenduak*".

Hau zen egiaztapenaren norainokoa: "*Jasandako atxikipenen eta konturako sarreren kontzeptuan aitortutako datuak eta hirugarrenek egindako aitorpen informatiboetatik lortutako eta administrazioaren esku dauden aurrekariak eta datuak alderatzea*".

AMENABARrek erantzun zuen XX/XXG taldea, 2018ko SZ kontsolidazioan ordaindu zuena, foru-ikuskaritzaren eskumenekoa dela, eta, beraz, ZAEAk ez duela eskumenik informazioaren eta dokumentazioaren eskaera egin den uneko egiaztapen mugatua egiteko. Hala ere, GFAri dokumentazioa ematearen alde agertu da, administrazio horrek baitu ikuskatzeko eskumena.

3.– 2022ko urriaren 24an, ZAEAk, egiaztapen mugatuko zerga-kudeaketaren prozedura beraren esparruan, beste dokumentazio-errekerimendu bat egin zuen, aurrekoaren norainokoa eta edukia errepikatuz.

AMENABARrek erantzun zuen esanez, Arbitraje Batzordearen 19/2022 Ebazpenaren arabera, ZAEAk ez duela eskumenik egiaztapen mugatuko prozedura hasteko.

Hala eta guztiz ere, AMENABARrek koadro bat aurkeztu zuen, non zehazten baitziren talde fiskala osatzen duten sozietateek 2018an jasandako atxikipenak eta konturako sarrerak, eta berretsi zuen prest zegoela dokumentazio guztia GFAri emateko, hura baita ikuskaritzaren eskumena duen administrazioa.

4.– 2022ko azaroaren 17an, ZAEAk hirugarren errekerimendu bat egin zuen, hauek aurkezteko: "*Taldeko sozietateek jasandako atxikipenen frogagiriak, 2022-11 16ko errekerimenduaren erantzunean aurkeztutako koadroan jasota daudenak*".

AMENABARrek, ZAEAk eskumenik ez duela errepikatu arren, araudi erkidearen eraginpean dauden atxikitzaileek aurkeztutako frogagiriak aurkeztu zituen, eta berretsi zuen prest zegoela dokumentazio guztia GFAri emateko, administrazio horrek baitu ikuskatzeko eskumena.

5.– 2022ko urriaren 14an, zergapekoak GFAri jakinarazi zion ZAEAk egindako lehen informazio- eta dokumentazio-eskaera.

6.– 2022ko abenduaren 5ean, GFAk ZAEAri inhibitzeko eskatu zion egiaztapen mugatuko kudeaketa prozedura baten barruan informazioa eskatzeko eskumenari dagokionez.

7.– ZAEA ez zenez inhibitu GFAren alde, 2023ko urtarrilaren 31n eskumen-gatazka planteatu zen, 4/2023 espediente-zenbakiarekin, eta prozedura arruntaren bidez izapidetu da.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Arbitraje Batzordearen eskumena.

Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluaren arabera, Arbitraje Batzordeak eginkizun hauek izango ditu:

> "a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean

sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea".

Horrekin bat etorriz, Arbitraje Batzordeak eskumena du erabakitzeko ea ZAEAk egiaztapen mugatuko prozedura batean erabilitako informazio-, eta dokumentazio-errekerimenduek gainditzen dituzten Ekonomia Itunak ikuskapen-eskumenik ez duen administrazioari ematen dizkion egiaztatze-ahalmenak.

2.– Arbitraje Batzordearen jarrera.

Arbitraje Batzordearen 19/2022 Ebazpenak (15/2016 gatazkari buruzkoak) jada esplikatu zuen ezen, nahiz eta partekatua den zergak proportzioan ordaintzen dituzten zergapetuen gaineko zergen kudeaketa-eskumena, Ekonomia Itunak lankidetza arloan izan duen bilakaera zerga-kudeaketaren prozeduraren erreformaren aukakoa izan dela, eta, beraz, Itunaren interpretazio integratzaileak zera ulertzera eramango gintuzkeela: "*Aldibereko kudeaketaren bidezko egiaztapenaren eskumenak Zergei buruzko 1963ko Lege Orokorrean arautzen zen xedea eta norainokoa zuen —eta gehienez 25/1995 Legean araututakoa, hori baitzegoen indarrean orain indarrean dagoen Ekonomia Ituna 12/2002 Legearen bidez onartu zenean—, baina ez zerga-kudeaketa indarrean dagoen 58/2003 Legean ulertzen den moduan, eta, bereziki, ez egiaztapen mugatuko prozedurak egitea, baldin eta garatutako jarduketen norainoko material eta geografikoagatik —eta kontuan hartuta egungo arauketak berak, ahal eta*

araubide juridikoan, ikuskapen-prozeduretara hurbiltzen dituela (ondorio preklusiborik eragiteak agerian uzten duen moduan, datuak egiaztatzeko prozedurek ez bezala, adibidez)— zergapetze-egoerak eragin baditzakete zergadunentzat, beren betebeharrak betetzean, edo eragina izan badezakete administrazio eskudunaren ikuskapen-jarduketetan, lehenago azaldu den moduan".

Hori, nolanahi ere, bateragarria da Auzitegi Gorenaren ikuspegiarekin; izan ere, 2092/2015 eta 1965/16 Epaietan kudeaketa-jarduketen mugatzat ezartzen da beste administrazioaren lurraldean egindako eragiketen egiaztapena.

Kasu honetan, uste da ZAEAk, nahiz eta posible den bere eskumenen atxikitzaileei frogagiriak eskatu izana, Foru Aldundiaren ikuskapen-eskumena duen zergapeko baten gainean diharduela, Ekonomia Itunak aldi berean aitortzen dizkion zerga-kudeaketako ahalmenak gainditzen dituen likidazio-prozedura batean.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hau

ERABAKITZEN DU

1.– Adieraztea ezen ZAEAk gainditu egin duela kudeaketa bidez egiaztatzeko duen eskumena AMENABARren 2018ko ekitaldiko SZren egiaztapen mugatuko prozeduran emandako informazio- eta dokumentazio-errekerimenduari dagokionez.

2.– Erabaki hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta GRUPO AMENABAR XXI sozietateari jakinaraztea.

Izpta.: Violeta Ruiz Almendral.

Izpta.: Sofía Arana Landín.

Izpta.: Javier Muguruza Arrese.